

# getxoBerri

## / Nabarmentzekoak

- > "Gaurik laburrena", film laburrekin hitzordu berria (3. or.)
- > Castroviejo berriro ere Espainiako txapeliduna, berrindularitzako erlojupekoan (4. or.)
- > Getxoko XXIX. Nazioarteko Tenis Txapelketa (4. or.)



**J.M. Ballester:**  
"Kostaldekoko elementu enblematico bat berreskuratzea, indusketa arkeologikoen hasiera eta herritarren integrazioa dira Punta Begoñako gakoak" (2. or.)

**GETXO MAGIK.** Hilaren 11tik 14ra, Getxoko Magia Jaialdia, udalerriko zenbait antzeztokitan.

**Bertso saio mundiala.** Hilak 12, ostirala, Muxikebarriko Ereaga aretoan, 21:00etan, sei bertosolarirekin. Sarrera: Algortako eta Romoko Kultur Etxeetan jaso beharreko gonbidapenez.

**A GENDA**

## Nazioarteko Jazz Jaialdiaren 43. ekitaldian murgilduta

Jazza da egun hauetako protagonista Getxon. Jaialdia martxan da eta datorren igandera, utzailaren 7ra arte, kontzertu nagusiak izango dira Muxikebarri, Arte, Kultura eta Kongresuen Zentroan (21:00etan hasita); Hirugarren Milurteko atala Algortako Geltokia Plazan (19:00etan) eta *jam sessions* izenekoak Piper's Irish Pubean (24:00etan), goizeko bi saiorekin batera (ikus agenda).

Emozioa pil-pilean izango da, datorren igandean, utzailak 7, jakin arte zein talde izango den Taldeen Lehiaketaren irabazlea. Horrek 14 Grammy sari irabazi dituen Paquito D'Rivera musikari ospetsuaren aurretik joko du. Bere disko



Madeleine Peyroux



Paquito D'Rivera

kopuru handiak erakusten ditu jazz, bebop eta musika latindarrekin dituen ardura, berotasuna eta gogo handia, ahaztu gabe musika klasikoarekiko ekarpena. Aurten D'Riverak bere publikoarentzat opari berezi bat prestatzea erabaki du, diskoa eta dokumentala izango den kontzertua eskainiko baitu, *Caribbean Tour* izeneko. Formatu berri horretarako Falla, Albéniz, Rodrigo eta Tárregaren pieza batzuk eta baita Portugalako fado hobeenak ere hartuko ditu *latin jazz* estilora eramateko. Abentura horrekin arrakasta lortzeko musikari nabarmen batzuen partaidetza izango du lagun agertokian. Egitarau osoa: [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

Udal Arlo eta Zerbitzuek badituzte jada arduradunak eta izendatu dira erakunde autonomoetako lehendakaritzak

## Zinegotzien ordainsariak mantendu egingo dira 2019-2023 Legegintzaldian

EAJ, PP eta PSE-EE alderdien aldeko botoekin eta Guk eta EH Bilduren kontrako botoekin, udal-korporazio berriaren lehenengo osoko bilkurak, aurreko ostiralean, ekainak 28, babestu egin zituen Udaleko 2019-2023 legegintzaldirako alderdi politikoetako administrariaren, aholkularien eta udalkideen ordainsariak, baita giza baliabideen proposamena ere. Ildo horretatik, alkatearen ordainsaria urtean 83.033,41 eurokoa izango da. Gainerakoek hontako ordainsari hauek izango dituzte: 70.175,89 €/urte, Gobernu Batzarreko zinegotziek eta alderdi politikoetako bozeramaileek; 55.171,37 €, bestelako zinegotziek; eta 35.087,95 €, dedikazio erdiko zinegotziek. Alkatetzak lau aholkulari izango ditu, eta horietako bat arduraldi erdian arituko da. Talde politikoek lantsaio osoan arituko den aholkulari bat izango dute edo, bestela, lantsaio erdian arituko diren bi aholkulari, hiru udalkide baino gehiago dituen talde politiko bakoitzerako. Guztira zazpi eta erdi aholkulari izango dira, aurreko legegaldian baino erdi bat gehiago, PSE-EEri dagokiona. Horrez gain, Alkatetzak administrari bat izango du; eta beste bost administrari Udaltzatzen bi kide edo gehiago dituzten udal talde politikoetara atxikita egingo dira. Udalkideen ordainsariak, alkateare-



### ARLOETAKO ETA HORIEN MENPEKO ZERBITZUETAKO ARDURADUNAK

<b>Idazkaritza Nagusiaren Arloa eta Herritarren Seguratasun Arloa</b>	Keltse Eiguren Alberdi (EAJ/PNV)
<b>Kontu-hartzailetza Orokorraren Arloa; Diruzaintza Arloa eta Langileria eta Antolaketa Arloa</b>	Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ/PNV)
<b>Ekonomia Sustapenaren Arloa eta Hirigintza-plangintza, Kudeaketa eta Disziplina Arloa. Udal eraikinak</b>	Iñigo Urkitza Yañez (EAJ/PNV)
<b>Azpiegituren, Obren eta Zerbitzuen Arloa-Ingurumena eta Gobernu Irekirako eta Modernizaziorako Arloa</b>	Janire Ocío Celada (EAJ/PNV)
<b>Ingurumeneko Hiri Zerbitzu eta Ingurumen Kalitate Zerbitzu (Azpiegituren, Obren eta Zerbitzuen Arloa-Ingurumenera atxikia)</b>	Joseba Arregi Martínez (EAJ/PNV)
<b>Informazio eta Sustapen Turistiko Zerbitzu (Ekonomia Sustapenaren Arloari atxikia) eta Euskara Zerbitzu (Gobernu Irekirako eta Modernizaziorako Arloari atxikia)</b>	Irantzu Uriarte Gómez (EAJ/PNV)
<b>Komunikazio, Gardentasuna eta Partaidetza Zerbitzu (Gobernu Irekirako eta Modernizaziorako Arloari atxikia)</b>	Ainhoa Galduroz Álvarez (EAJ/PNV)
<b>Kontratazio, Ondare eta Etxebizitza Arloa</b>	Álvaro González Pérez (EAJ/PNV)
<b>Gizarte Kohesiorako Arloa</b>	Carmen Díaz Pérez (PSE-EE)
<b>Hezkuntza Zerbitzu (Gizarte Kohesiorako Arloa)</b>	Asunción Olaeta Pérez de Mendiola (PSE-EE)
<b>Zahartzte Aktibo Zerbitzu (Gizarte Kohesiorako Arloari atxikia)</b>	Arantza Rica Álvarez (EAJ/PNV)
<b>Gazteria Zerbitzu (Gizarte Kohesiorako Arloari atxikia)</b>	Gonzalo Ayo Jiménez (PSE-EE)
<b>ERAKUNDE AUTONOMOETAKO LEHENDAKARITZAK</b>	
<b>Getxo Kirolak</b>	Álvaro González Pérez
<b>Kultur Etxea</b>	Irantzu Uriarte Gómez
<b>Andrés Isasi Musika Eskola</b>	Irantzu Uriarte Gómez
<b>Jesusen Bihotzaren udal Egoitza</b>	Keltse Eiguren Alberdi

nahiz zinegotzienak (arduraldi eskubideekin zein arduraldi partzialekin), bere horretan mantenduko dira eta aurreko legegintzaldia amaitu zenean indarrean zeuden zenbatekoak mantenduko dira; hau da, ez da inolako igoerarik egingo udalkideen ordainsarietan, ez alkatearenean ezta gainerako zinegotzienean ere. Era berean, liberatuta ez dauden udalkideek bertaratzengatik jasotzeko eskubidea duten dieten zenbatekoak ere bere horretan geratuko dira; hala ere, lehen existitzen ez zen gehiengo muga bat ezarri da: urtean 12.000 eurokoa. Gauza bera gertatuko da udaleko talde politikoentzako esleipenekin eta behin-behineko langileen soldatekin. Gabonetan otzara bat jasotzeko antzinako eskubidea ez du proposamen berriak aurrekusten udalkideentzako.

EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek uste dute aipatutako soldatak zentzu-gabekeria eta eskandalu bat direla.

### Osoko bilkurak ostegunetan izango dira, 09:30ean

Alderdi politiko guztien aldeko botoekin eta EH Bilduren aurkakoeekin, Udaltzatzen erabaki zuen ohiko osoko bilkurak egiteko eguna aldatzea. Hemendik aurrera hilaren azken ostegunetan egingo dira, 09:30ean; orain arte, asoteazketan egiten ziren, 09:00etan.



### UZTAILAK 4 OSTEGUNA

**XLIII. Nazioarteko Jazzaldia.** Algortako Geltokia plazan, 19:00etan, "Hirugarren Milurtekoa" atalean, Euskadiko Ikasleen Jon Urutia Trio. Sarrera dohainik. Muxikebarriko Ereaga aretoa, 21:00etan, Talde Lehiaketan, Szymon Klekowicki Sextet. Jarraian, Julian Lage Trio. Sarrera: 12€. Algortako The Piper's Irish Puben, 24:00etan, *jam saioak* Detectives Descalzados taldearen eskutik.

### UZTAILAK 5 OSTIRALA

**XLIII. Nazioarteko Jazzaldia.** Algortako Geltokia plazan, 19:00etan, "Hirugarren Milurtekoa" atalean Girls in Band. Sarrera dohainik. Muxikebarriko Ereaga aretoa, 21:00etan, Ángel Lorente 5et. Jarraian, Kenny Barron Trio. Sarrera: 15€. Algortako The Piper's Irish Puben, 24:00etan, *jam saioak* Detectives Descalzados taldearen eskutik.

**Tailerra** "Descubrimos nuevas maneras de mejorar y prolongar la vida de las personas", etxeko eta zaintzako langileentzat, 18:30ean. Cosmopolis GKEak emango du bere egoitzan (Alangoeta 8, Algorta).

### UZTAILAK 6 LARUNBATA

**XLIII. Nazioarteko Jazzaldia.** Algortako Geltokia plazan, 12:00etan, eskolai-aretoa; 13:00etan, kontzertua eta dantzaldia; eta 19:00etan, "Hirugarren Milurtekoa" atalean, Aishinka. Sarrera dohainik. Muxikebarriko Ereaga aretoa, 21:00etan, Talde Lehiaketan, Marc Martín Trio. Jarraian, Madeleine Peyroux. Sarrera: 25€. Algortako The Piper's Irish Puben, 24:00etan, *jam saioak* Detectives Descalzados taldearen eskutik.

### UZTAILAK 7 IGANDEA

**XLIII. Nazioarteko Jazzaldia.** Algortako Andrés Isasi Musika Eskolan, 12:00etan, Kristalezko Kioskoa atala (familia osoarentzako saioak), Crazy Jazzers taldearen eskutik; eta 19:00etan, "Hirugarren Milurtekoa" atalean, Juanma Urriza Quartet. Sarrera dohainik. Muxikebarriko Ereaga aretoa, 21:00etan, Talde Lehiaketako irabazlea. Jarraian, Paquito D Rivera Septet. Sarrera: 20€.

### UZTAILAK 8 ASTELEHENA

**Gaurik laburrena.** Muxikebarriko Arrigunaga aretoa, 21:00etan, film laburren erakustaldia. Gaztelaniaz. 16 urtetik gora. Sarrera: gonbidapenez (Algortako eta Romoko Kultur Etxeetan).

### UZTAILAK 9 ASTEARTEA

**Gaurik laburrena.** Muxikebarriko Arrigunaga aretoa, 21:00etan, film laburren erakustaldia. Euskaraz. 16 urtetik gora. Sarrera: gonbidapenez.

### UZTAILAK 11 OSTEGUNA

**GETXO MAGIK – Getxoko Magia Jaialdia.** Magipoteoa (euskaraz/gaztelaniaz): Tor + Txoborro + Imanol Iturri magoak, 18:00etan, Algortako ostalaritza guneetan, eta 20:00ean, Areetako eta Romokoetan.

**Zikloa: Punta Begoñako xehetasunak.** 17:30ean, Punta Begoñako Galerietan, "Galeriak janzten: zeramika apaingarria". Hizlaria: Javier García (arkeologia dokorea eta Ondare Eraikiari buruzko Ikerketa Taldeko ikertzailea (UPV-EHU)). Aurretiko izen-ematea: 94 491 08 00.

### UZTAILAK 12 OSTIRALA

**GETXO MAGIK – Getxoko Magia Jaialdia.** Haurrentzako tailerrak (gaztelaniaz): Taylor Magoa, 17:30ean, Romoko Kultur Etxean. 6 urtetik gora (nagusai batek lagunduta). Magia txokoak: Imanol Iturri + Tor + Altrius magoak, 19:00etan, 19:30ean eta 20:00etan, Areetako Geltokia, Santa Eugenia eta Gobelondo plazetan. Sarrera dohainik.

**Kale Antzerkia. "Kale antzerkia bultzatzu" jaialdia.** Neguriko Gemika parkean, 18:30ean, "Ipui-nak dantzan". Apika antzerki-taldearen eskutik. Sarrera dohainik.

**Bertsu saio mundiala.** Muxikebarriko Ereaga aretoa, 21:00etan, sei bertsolarirekin. Sarrera: Algortako eta Romoko Kultur Etxeetan jaso beharreko gonbidapenez.

### UZTAILAK 13 LARUNBATA

**GETXO MAGIK – Getxoko Magia Jaialdia.** Haurrentzako tailerrak (euskaraz): Txoborro mago, 11:00etan, Algortako Kultur Etxean. 6 urtetik gora (nagusai batek lagunduta). "El gran Braulio": Adrián Conde mago, 18:00etan, Algortako San Nikolas plazan. Sarrera dohainik. "Ezenako gala handia" (euskaraz/gaztelaniaz): Imanol Iturri + Tor + Txoborro + D Albeniz + David Blanco + Altrius magoak, 20:00etan, Muxikebarriko Ereaga aretoa. Sarrera: 3€ (dagoeneko salgai).

### UZTAILAK 14 IGANDEA

**GETXO MAGIK – Getxoko Magia Jaialdia.** Magipoteoa (euskaraz/gaztelaniaz): Txoborro + Taylor magoak, 12:30ean, Borobia plazan, Tamarindo kalean (Andra Mari). Haurrentzako tailerrak (gaztelaniaz): Altrius mago, 17:30ean, Andra Mariko frontoian 6 urtetik gora (nagusai batek lagunduta). "Aztikeriak" (euskaraz): Txoborro + Tor magoak, 19:00etan, Andra Mariko frontoian. Sarrera dohainik.

orduka...): Tel.: 632 89 84 93.

- **Salgai** takiloi zuria, etxeko edozein gunerako balio duena. Merkea. 40€. Tel.: 94 430 05 37 eta 696 13 80 69.

- **Salgai** lanpara-modelo askotari-koak. Merkea: 20 eta 50€ arte-koak. Tel.: 94 430 05 37 eta 696 13 80 69.



- **Neska** erizaintzako teknikari laguntzailea, adinekoak, umek eta abar zaintzeko prest (barneko,


Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukia eragizko-tasunaren erantzule izango.

**Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111**

STAFF >

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizi-tzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero. Komunikazio zinegotzia: Amaia Agirre Zuzendaria: Javier García. Erredaktoreburua: Itziar Aguayo. Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo.

Urgul Kalea z/g., 4.º. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. E-posta: [getxokoudalarentsa@getxo.eus](mailto:getxokoudalarentsa@getxo.eus) Arte arduradunak: [Boztan Bilbao S.L.](mailto:Boztan Bilbao S.L) Inprimaketa: [Bilbao Editorial Producciones S.L.U.](mailto:Bilbao Editorial Producciones S.L.U) Banaketa: [Lantegi Batuak](mailto:Lantegi Batuak) Gordailu legala: [BI-388-87](mailto:BI-388-87)



J.M. Ballester, mende erdi baino gehiago kultur ondareari eskainita. Galerietara bisita:

## "Kostaldeko elementu enblematiko bat berreskuratzea, indusketa arkeologikoaren hasiera eta herritarren integrazioa dira Punta Begoñako gakoak"

Europako Ondare Kulturean aditua den Jose María Ballesterrek Punta Begoñako galeriak bisitatu ditu duela gutxi, Unesco Katedrak gonbidatuta eta gaur egungo aztarnategi arkeologikorik interesgarrienetakoa ezagutzeko nahia tarteko. 2005. urtera arte, Europako Kontseiluko Kultur eta Natura Ondarearen zuzendari izan zen Ba-

llester jauna. Donejakue bidea lehenengo Europako kultur ibilbide izendatzearen arduradun ere izan zen. Horrez gain, Altamirako kobazulo Kontseiluko Prebentiboko Planaren jarraipena egiteko komisiorekin koordinatzailea da, Botín Fundazioko Ondare arduraduna eta Arte Ederretako urrezko domina.

Europar ondare kulturalari lotutako ibilbiderik mirengarrienetakoa zuzen. Zein izan da, sozialki, zure proiektu errentagarriena? Zein proiektuz zaude bereziki harro?

Esperientzia apur bat badaukat arlo horretan; izan ere, mende erdi baino gehiagoz aritu naiz kultur ondarearen bueltan lanean.

Sozialki errentagarriena iruditu zaidana? Bi aipatuko nituzke: batetik, Europako Kontseiluan bultzatu genuen Kooperazioko eta Laguntza Teknikoko Programa, Europa erdialdeko eta ekialdeko iua herrialde guztietan aplikatu zena Berlingo harrisia erori ostean. Herrialde horietako askorentzat, kultur ondareari lotutako politika berriaren abiapuntua izan zen. Eta bestetik, Botín Fundazioaren Ondarea eta Lurralde Programa; landa-eremuko garapena sustatzen eta despoblazioaren aurka borrokatzen lehenengoa izan zen, betiere lurraldearen beraren ondare-kontzeptutik eta bertako bizilagunen ezagutzatik abiatuta.

Bereziki pozik nago, gainera, Paisaiaren Europako Hitzarmena (paisaia kudeatzeko lehenengo nazioarteko ituna izan zena) ni Europako Kontseiluko Kultura eta Kultur eta Natura Ondarearen zuzendari nintzenezan landu, onetsi eta sinatu izanaz, eta Donejakueko bideak Europako lehenengo ibilbide kultural gisa sustatzeaz ere bai. Gaur egungo programak jada 36 ibilbide kultural ditu, eta Europako Carlos V. Saria jaso berri du. Felipe VI. erregeak eman zuen sari hori Yusten, duela hilabete.

**2018a Kultur Ondarearen Europako urtea izan da. Erabilgarria izan da? Zeintzuk dira datoen**

urteetarako ildoak?

Beti dira mesedegarri politikariak eta herritarrak Kultur Ondarearen alde sentsibilizatzeo kanpainak; are gehiago, Europar Batasunak sustatutakoak badira. Kanpaina horietan adierazpen ugari eta jardueraren artean, Nik halakoa lau ezagutu ditut Europako Kontseiluan. Baina garrantzitsuena da kanpaina horiek benetan balio izatea, 1975eko Ondare Arkiteltonikoaren Europako Urteak balio izan zuten bezala, Kultur Ondarea Europako eraikuntzaren estrategia eta planetan integra dadin. Bereziki, gaur egun bezala, gizarte aldaketa sakonak gertatzen ari diren uneetan; hain zuzen, gizarte eredu berri bat osatzen ari delako. Azken urteetan frogatu da Kultur Ondarea (bere funtzio sozialagatik) gako izan daitekeela eta paper garrantzitsua joka dezakeela eta jokatu behar duela gizarte proiektu berrian. Horren ostean, baliabide gisa erabilera jasangarria egiteko aukera egongo da. Dena den, funtzio sozialak lehentasuna izan behar du beti.

Itzaropentsu egoteko arrazoia da ekainaren 20an, berriki izandako goi-bilera europarrean, berriaz txertatu izana kultur ondarea EBren 2019-2024 bos-turtekorako orientazio estrategikoetan.

**Europako Kontseiluko zuzendari zinela, martxan jarri zenuen Donejakue bidearen eta europar ibilbideen suspertzea... Halako garrantzia izango zutela uste zenuen?**

Esperientziarik onenetarikoak izan zen, eta gaur egun Donejakuearen fenomenoa deritza horri lotuta jarraitzen dut. Garai hartan Europako Kontseiluko

idazkari nagusia zen Marcelino Orejaren babesari eta lidergoari esker izan zen posible. Berreskuratzen egin nahi izan gertuen, Europa mailan duen garrantziarekin, erromesen bide hori, zibilizazioaren bide ere izan zena, alderdi espiritualaz gain, noski. Hala, orain eraiki nahian gabil-tza Europaren hainbat alderdi irudikatuta ziren. Emaitzak gure aurreikuspenak gainditu zituen. Hala ere, Donejakueko bidei mende garrantzia eman zien beste gertakari bat ere egon zen: Juan Pablo II. Aita Santuak Compostelara egin zuen bisita eta horren eragin mediatikoa. Iparraldeko bidea nahiz historikoki Compostelarekin lotutako beste bide batzuk ("Frantziar bidea" deritzona, esate baterako) Donejakueko dinamika horretan txertatzea eta UNESCO bide horiek aitorzea justiziako ekintza izan zen.

**Punta Begoñaren balioa nabarmendu eta berreskuratzeo proiektuaren zein alderdi nabarmenduko zenituzke?**

Funtsezkoak iruditzen zaizkidan hiru alderdi nagusi aipatuko nituzke: batetik, galeriak berreskuratzea, Getxoko itsas-faxadaren elementu enblematikoetako bat osatzen dutelako eta hiri hau "errematatzea" ahalbidetuko duelako, herri-aretoak, arantzaleenak, bizitegi-aretoak eta paisaia industrial "josiz" eta integratuz; bestetik, jada hasitako indusketa arkeologikoak, itsasorantz doan mutur horren historia eta inteligentzia itzuliko digutenak; eta, azkenik, herri-integrazioaren eta parte-hartzearen espiritua, berreskuratzeo obra honek nahiz etorkizuneko izango duen erabilera planteatutakoa.